

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 14/2015 Erabakia, urtarrilaren 20koa, behin betiko onartzen dituena Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako Aramaioko hiri lurzoruaren mugak, muga horiek ALHAOn argitaratzea eta alegazioetarako jendaurrean jartzea

Abenduaren 18ko 819/2014 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketari; Aramaioko udalerriri dagokio, eta abenduaren 4ko 598/2013 Foru Aginduaren arabera egin da, zeinak onartu baitzuen baldintza ez funtsezkoen betetzea, hain zuzen ere abuztuaren 3ko 397/2012 Foru Aginduak, Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedienteari behin betiko onarpen partziala eman eta eten zuenak, ezarritakoena.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, bere 11.4 artikuluan 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, baina epe hori igarota, Aramaioko Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa; Aramaioko udalerriri dagokio, eta abenduaren 4ko 598/2013 Foru Aginduaren arabera egin da, zeinak onartu baitzuen baldintza ez funtsezkoen betetzea, hain zuzen ere abuztuaren 3ko 397/2012 Foru Aginduak, Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espedienteari behin betiko onarpen partziala eman eta eten zuenak, ezarritakoena.

Bigarrena. Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, 3.2.b) idatz zatiaren a', b' eta c' puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri eraikinek hartutako lurzoruak tratatzeko.

Hirugarrena. Hirugarrena. Honako erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean jarriko da 15 egunez, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Aramaioko udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikuluan 5. paragrafoan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 20a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRES GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO